# Bestelako Xedapenak

## JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

**5873**

86/2010 EBAZPENA, azaroaren 12koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, Jaurlaritzaren Kontseiluak hartutako Erabakia, «Lurraldearen Antolamendurako Jarraibideak aldatzeko prozedurari hasiera eman eta aldaketa horren izaera ez-funtsezkoaren inguruan iritzia ematekoa», argitaratzea xedatzen duena.

Jaurlaritzaren Kontseiluak 2010eko urriaren 26ko bilkuran honako erabaki hau hartu zuen: «Lurraldearen Antolamendurako Jarraibideak aldatzeko prozedurari hasiera ematea eta aldaketa horren izaera ez-funtsezkoaren inguruan iritzia ematea»; hori dela-eta, erabaki hori jakitera emateko, honako hau

EBATZI DUT:

***Artikulu bakarra.***– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara ematea «Lurraldearen Antolamendurako Jarraibideak aldatzeko prozedurari hasiera emateko eta aldaketa horren izaera ez-funtsezkoaren inguruan iritzia emateko» Erabakia, ebazpen honen eranskinean azaltzen den moduan.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko azaroaren 12a.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendaria,
M.ª JESÚS CARMEN SAN JOSÉ LÓPEZ.

# Otras Disposiciones

## PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

**5873**

RESOLUCIÓN 86/2010, de 12 de noviembre, de la Directora de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento, por la que se dispone la publicación del Acuerdo adoptado por el Consejo de Gobierno «de iniciación del procedimiento de modificación de las Directrices de Ordenación Territorial y pronunciamiento sobre el carácter no sustancial de la misma».

Habiéndose aprobado por el Consejo de Gobierno, en su sesión celebrada el día 26 de octubre de 2010, el Acuerdo «de iniciación del procedimiento de modificación de las Directrices de Ordenación Territorial y pronunciamiento sobre el carácter no sustancial de la misma», y a los efectos de darle la publicidad debida,

RESUELVO:

***Artículo único.***– Publicar en el Boletín Oficial del País Vasco el texto del Acuerdo «de iniciación del procedimiento de modificación de las Directrices de Ordenación Territorial y pronunciamiento sobre el carácter no sustancial de la misma», que figura como anexo a la presente.

En Vitoria-Gasteiz, a 12 de noviembre de 2010.

La Directora de la Secretaría del Gobierno
y de Relaciones con el Parlamento,
M.ª JESÚS CARMEN SAN JOSÉ LÓPEZ.

ERANSKINA, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO HARREMANETARAKO ZUZENDARIAK AZAROAREN 12AN EMANDAKO 86/2010 EBAZPENARENA

ERABAKIA, LURRALDEA ANTOLATZEKO JARRAIBIDEAK ALDATZEKO PROZEDURARI HASIERA EMAN ETA HORREN IZAERA EZ FUNTSEZKOAREN INGURUAN IRITZIA EMATEKOA.

Lurraldearen Antolamendurako Jarraibideen, Lurraldearen Zatiko Planen eta Lurraldearen Arloko Planen funtsezkoak ez diren aldaketak onartzeko prozedura arautzen duen irailaren 9ko 206/2003 Dekretuaren 3. artikuluan berariaz ezartzen denez, Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluari dagokio Lurraldearen Antolamendurako Jarraibideen aldaketa bat formulatzeko aukeraren inguruko erabakia hartzea.

Jaurlaritzaren Kontseiluaren erabakian, aldaketa justifikatzen duten arrazoiak emango dira, eta argitaratu egin beharko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, eta, gutxienez, autonomia-erkidegoan gehien hedatzen diren egunkarietako bitan.

Euskal Autonomia Erkidegoko LAA Lurraldearen Antolamendurako Jarraibideak 1997an onartu ziren (28/1997 Dekretua). Funtsezko edukiak lanketaren hasierako etapetan zehaztu ziren, 80ko hamarkadaren amaieran. LAAk planteatu ziren unean, lurraldearen eta arloen plangintzaren garapena oraindik oso hasiberria zen, eta lurralde mailako legeria ere bai.

Ekoizpen-sistemako aldaketa-aro bat zen, eta hirien eta ingurumenaren narriadura handia zen. Testuinguru horretan, LAAen edukiak eta diziplina jartzeko planteamendua funtsezko bi helbururen inguruan antolatu ziren:

– Hirigintzaren, ingurumenaren eta azpiegitura-garapenaren erreferentziazko lurralde-eredu bat zehaztea, lurraldeko eta arloko prozesuak orientatzeko, une hartan garapen-prozesuei modu eraginkor eta jasangarrian aurre egiteko tresna juridiko eta plangintzazkorik ez zeukan lurralde batean.

– Ekonomiaren eta jendartearen eraldaketa-prozesuei lagunduko dien lurralde-eredua bultzatzea, aurreko industria-eredua agortzeak eragindako krisi sakonaren unean.

Urte horietan zehar, erronka horiei aurre egiteko LAAk eraginkorrak direla frogatu da, eta lurraldeko nahiz arloko plangintza-tresnen garapen handiko etapa bat bultzatu dute.

Tresna horien guztien bidez, azken hamarkadan zehar, bilakaera handia egon da. Euskal Autonomia Erkidegoak «hiri-eraldatze handia» dei diezaiokegun

ANEXO A LA RESOLUCIÓN 86/2010, DE 12 DE NOVIEMBRE, DE LA DIRECTORA DE LA SECRETARÍA DEL GOBIERNO Y DE RELACIONES CON EL PARLAMENTO

ACUERDO DE INICIACIÓN DEL PROCEDIMIENTO DE MODIFICACIÓN DE LAS DIRECTRICES DE ORDENACIÓN TERRITORIAL Y PRONUNCIAMIENTO SOBRE EL CARÁCTER NO SUSTANCIAL DE LA MISMA.

El artículo 3 del Decreto 206/2003, de 9 de septiembre, por el que se regula el procedimiento para la aprobación de las modificaciones no sustanciales de las Directrices de Ordenación Territorial, Planes Territoriales Parciales y Planes Territoriales Sectoriales establece de manera expresa que corresponde al Consejo de Gobierno vasco la decisión acerca de la oportunidad de formular una modificación de las Directrices de Ordenación Territorial.

El acuerdo del Consejo de Gobierno motivará las causas que justifican la modificación y deberá ser publicado en el Boletín Oficial del País Vasco y en, al menos, dos periódicos de los de mayor circulación en la Comunidad Autónoma.

Las Directrices de Ordenación del Territorio del País Vasco (DOT) fueron aprobadas en 1997 (Decreto 28/1997). Sus contenidos esenciales se definieron en las etapas iniciales de su elaboración, a finales de la década de los 80. Las DOT se plantearon en un momento en que el desarrollo del planeamiento territorial y sectorial era todavía muy incipiente, así como el de la legislación con incidencia territorial.

Era una etapa de cambio en el sistema productivo caracterizado por un importante deterioro urbano y ambiental. En este contexto, los contenidos y el planteamiento disciplinar de las DOT se organizaron en torno a dos objetivos fundamentales:

– Definir un modelo territorial de referencia urbanística, ambiental y de desarrollo de infraestructuras que orientara los procesos territoriales y sectoriales en un territorio que en ese momento carecía de los instrumentos jurídicos y de planeamiento necesarios para afrontar de forma eficaz y sostenible los procesos de desarrollo.

– Impulsar un modelo territorial que apoyara los procesos de transformación económica y social en un momento de crisis profunda por el agotamiento del modelo industrial anterior.

A lo largo de estos años las DOT han demostrado su eficacia para afrontar estos retos a la vez que han impulsado una etapa de intenso desarrollo de los instrumentos de planeamiento territorial y sectorial.

Todos estos instrumentos han contribuido a que, durante la última década, se haya dado una importante evolución. El País Vasco ha vivido una etapa

aroa bizi izan du, gure ekonomia hirugarren sektorera bihurtzeko eta modernizatzeko prozesu bati loturik. Horrek garapen-fase berri bat sortu du, ingurumena modu esanguratsuan hobetzeko eta hirien berrikuntza sakona egiteko.

Gure lurraldearen osagaiak eta oinarrizko egitura, funtsean, ez dira aldatu. LAAetako lurralde-eredua honetan oinarritzen da: hiriburuen, hiri ertainen eta horien inguruko eremu funtzionalen nukleo anitzeko sisteman; lurraldearen erabileren arteko egokitasunean eta lurraldeak biztanleak hartzeko duen gaitasunean oinarritutako ingurune fisikoaren kudeaketan; eta eremu funtzionalak beren artean eta EAE kanpoko herriekin lotzen dituen harreman-sisteman. Eredu hori oraindik erreferentzia baliagarria da, lurralde-aldaketaren prozesuak kudeatzeko, eta, gainera, adostasun orokorra dago ereduaren erabilgarritasunaren eta eraginkortasunaren arloan.

Orain garatu eta bilakarazi egin behar dira, lurralde-eredu horretatik abiatuta, nagusitzen joan diren elementuak edo eguneratu beharra daukatenak. Alderdi horiek ondokoak dira: mugikortasun jasangarria, paisaia, lurraldea birziklatzea eta ekonomia sortzailerako guneak garatzea. Funtsean, ereduaren alderdi hauek indartzean datza: lurraldearen kalitatea, jasangarritasunaren funtsezko faktore gisa egiten duen ekarpena eta oreka eta lehiakortasuna lortzeko oinarrizko elementu gisa berrikuntza bultzatzeko eskaintzen dituen aukeren aprobetxamendua.

Era berean, Lurraldearen Antolamendurako Jarraibideen, Lurraldearen Zatiko Planen eta Lurraldearen Arloko Planen funtsezkoak ez diren aldaketak onartzeko prozedura arautzen duen irailaren 9ko 206/2003 Dekretuaren 2. artikuluan ezartzen denez, aldaketa formulatzeko ekimena bere gain hartuko duen organoak, hau da, Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak, berariaz adierazi eta arrazoitu beharko du aldaketa ez dela funtsezkoa.

Hain zuzen ere, LAAk aldatzeko prozedura hasteko erabakia jasotzen duen Jaurlaritzaren Kontseiluaren akordioaren aurretik, berariaz adierazi eta arrazoitu beharko da aldaketa hori ez dela funtsezkoa. Kasu honetan, funtsezkoa ez izatearen oinarrian dagoena da plangintza-eredua ez dela aldatzen; erabat indarrean dagoela uste da, eta alderdi zehatz edo osagarri batzuk bakarrik aldatu behar direla.

Horrenbestez, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuak proposaturik, gaia eztabaidatu ondoren, Jaurlaritzaren Kontseiluak honako hau erabaki du:

que podemos denominar la «gran transformación urbana», asociada a un proceso de terciarización y modernización de nuestra economía, que ha generado una nueva fase de desarrollo, de significativa mejora ambiental y de profunda renovación urbana.

Los componentes y la estructura fundamental de nuestro territorio no han cambiado en lo esencial. El Modelo Territorial de las DOT se apoya en el Sistema Polinuclear de Capitales, las ciudades medias y las áreas funcionales configuradas en torno a ellas, una gestión del medio físico basada en la adecuación entre los usos y la capacidad de acogida del territorio y un sistema relacional que articula las áreas funcionales entre sí y conecta la CAPV con el exterior. Este modelo sigue siendo hoy una referencia válida para gestionar los procesos de cambio territorial y cuenta, además, con un consenso general en cuanto a su utilidad y eficacia.

Se trata ahora de desarrollar y hacer evolucionar, a partir de este modelo territorial, elementos que han cobrado un creciente protagonismo o que precisan ser actualizados. Son aspectos tales como la movilidad sostenible, el paisaje, el reciclado del territorio, el desarrollo de espacios para la economía creativa. Se trata, fundamentalmente, de reforzar los aspectos del modelo referentes a la calidad del territorio, a su contribución activa como factor esencial de sostenibilidad y al aprovechamiento de las oportunidades que ofrece para impulsar la innovación como elemento básico de equilibrio y de competitividad.

El artículo 2 del Decreto 206/2003, de 9 de septiembre, por el que se regula el procedimiento para la aprobación de las modificaciones no sustanciales de las Directrices de Ordenación Territorial, Planes Territoriales Parciales y Planes Territoriales sectoriales señala, igualmente, que el órgano encargado de adoptar la iniciativa de formular la modificación, es decir, el Consejo de Gobierno vasco deberá pronunciarse expresa y motivadamente sobre el carácter no sustancial de la misma.

Efectivamente, el acuerdo del Consejo de Gobierno que adopta la decisión de iniciar un procedimiento de modificación de las DOT debe con carácter previo pronunciarse expresa y motivadamente sobre el carácter no sustancial de dicha modificación. En el presente caso, el carácter no sustancial se basa en la consideración de que el modelo de planeamiento no sufre alteración y se valora como plenamente vigente siendo preciso únicamente modificarse en aspectos puntuales o accesorios.

En su virtud, a propuesta de la Consejera de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, y previa la correspondiente deliberación, el Consejo de Gobierno adopta el siguiente

ERABAKIA

***Lehenengoa.–*** Otsailaren 11ko 28/1997 Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Jarraibideak aldatzeko prozedura hastea eta Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailari aldaketa hori zuzendu eta prestatzeko agintzea.

***Bigarrena.–*** Irailaren 9ko 206/2003 Dekretuaren ondorioetarako, Erabaki honekin hasten den prozedurako aldaketa «funtsezkoa ez» dela zehaztea, ez delako eraldatzen indarrean dagoen plangintza-eredua eta alderdi zehatzak eta osagarriak bakarrik aldatzen direlako.

***Hirugarrena.–*** Erabaki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Euskal Autonomia Erkidegoan zabalkunde handiena duten egunkarietako bitan argitaratzeko agintzea.

ACUERDO

***Primero.–*** Iniciar el procedimiento de modificación de las Directrices de Ordenación Territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco aprobadas por Decreto 28/1997, de 11 de febrero, y encomendar al Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca la dirección y preparación de dicha modificación.

***Segundo.–*** Definir la modificación cuyo procedimiento se inicia con el presente Acuerdo como «no sustancial» a los efectos del Decreto 206/2003, de 9 de septiembre, y ello en base a la consideración de que no implica una alteración del modelo de planeamiento vigente sino una modificaciones de aspectos puntuales y accesorios.

***Tercero.–*** Ordenar la publicación del presente Acuerdo en el Boletín Oficial del País Vasco y en dos periódicos de los de mayor circulación en la Comunidad Autónoma del País Vasco.